

tubrada (1900). En algunos pasajes de su libro, Angel García-Sanz comenta las dificultades que se le presentaron en el momento de ubicar los tres semanarios criptocarlistas por causa de la poca atención que el carlismo de aquel momento había recibido hasta entonces. No es retórico afirmar que, sin ser en absoluto el único, uno de los méritos de su último libro consiste, precisamente, en haber realizado una notabilísima contribución a su conocimiento.

Jordi CANAL

Mikel AIZPURU, Antonio RIVERA: *Manual Social del Trabajo*, Siglo XXI eds. Madrid 1994, 441 orr.

Askotan argitaletxeek edota liburuegileek beren idazlanei jartzen dizkieten izenburuak ez datoz bat barneko orrialdeetan idatzirik dagoenarekin. Batzuetan, izenburu orokor bati, tokian tokikoari bat dagokio, bertze batzuetan, barruko mamia oso urrun galditzen da liburu azalean eskaintzen den izenburu esanguratsu edo erakar-garritik. Alderantzizko kasu baten aurrean gaude, nire ustez, Mikel Aizpuru eta Antonio Riverak kaleratu berri duten liburu honetan, «Manual de Historia Social del Trabajo» delakoan, hagitx ongi gainditu baitute eskuliburuaren maila, altuera handiko saioa burutuz.

Egileek, hitzaurrean erraten duten bezala, gaur egun, pairatzen ari garen krisia dela eta, XIX. Mendean «Giza Arazoa» deitua izan zenak izugarritzko gaurkotasuna berreskuratu du. Krisi ekonomikoak zituen ezaugarri klasikoei, hots, arazo teknologikoei, hiperproduktibitateari eta merkatun arteko desorekari... bertze aspektu berri batzuk, hala nola errentagarriak diren enpresen birkokatzea, hirugarren munduko lanekuaren konpetentzia... gehitzen ari zaizkie azken denboraldian.

Arazo hauetaz eta etorkizunari begiratuz, historiagileok dugun esparru zientifikotik, zaila bezain paradoxikoa izanen litzateke ikuspegi bat plazaratzea. Hala ere, arras egokitzat jotzen dugu jakitea zein izan diren, gaur egun arte, prozesu produktiboan parte hartzen duten egileen arteko harremanak eta lan munduan gauzatu den bilakaera. Beste aspektu batzuen artean hori da, hain zuzen ere, idazlan honetan EHUko irakasleak diren M. Aizpuru eta A. Riverak aztertu dutena.

Beraien analisi eremua mendabaldekoa izan da eta nahiz eta zenbait ataletan, antzinetatik aro garaikidera bitartean dauden produkzio erak aztertu, liburuaren ardatza azken mendeotan barrena

biraka dabil. Iraultza industrialia eta kapitalismoaren garapenak izan zituen gorabeherak tankera arras egoki batez laburbildu eta gero, liburuaren muinarekin topo egiten dugu. «Lanaren egileak» deitzen den atalean, kapitalismoak eratu zituen bizitza baldintza berriak, egoera desberdinak kontutan hartuz, aztertu dituzte. Ohizkoak diren ikerpuntuak, alokairu, lan baldintza eta antzekoei, ez hain arruntak diren bertze faktore batzuk gehitu dizkiete, langileriaren bizimodua eta egoera orokorraz jabe gaitzen. Ildo honetatik, hagitx adierazgarritzat jotzen ditugu aisia, herikuntza eta mentalitate aldeketei buruzko orrialdeak.

Era berean, eremu historiografiko berrietatik jarraituz, bidezkoztat jotzen dugu nekazalgoari eskaintzen dioten arreta. Paradoxikoa da oso, herrialde askotan gehiengo osatzen duen langile multzo hau historiak baztertzea. Zer erranik ez, Estatu Espainolaren mailan, non liburu honetan aipatzen den bezala, industria langileek XX. Mende artez zuten pisu handirik, eta II. Errepublika iritsi arte nekazalgoak langileria gehiengo gorpuztu zuen. Dena den, historiografiak oraindik saktore honekin duen zorra isladatzen da Aizpuru eta Riverak jorratutako atalean. Izan ere, aztergai hartu duten Europako hegoaldeko laborari motak ezin ditu laborantzak dituen aniztasun eta desberdintasunak, ezta hegoaldekoak bertakoak ere, era nahiko batez isladatu.

Hala ere, liburuaren hariak giza egileek dituzten ñabardura eta desberdintasunak barreskuratzen ditu langile mugimenduaren elkarre zein jokabideak aztertzen dituelarik. «Lan indarraren eratze prozesua»ri dagozkion ataletan, sindikatu eta langileen alderdien sorrera eta bilakaera ikusteaz gain, estatuaren partehartze gero eta handiagoa aztertzen dute. Prozesu honetan, langileriak martxan jarri zituen egituratze era desberdinak zein borroka motak oso ondo azaldu dituztelakoan gaude. Hutsune batzuk aipatzekotan, Marxen alienazio teoriaren garapen eskasarekin batera, III Internazionalak eta korrante komunistak, erakunde sindikal eta langileriaren erradikalizazio prozesuan izan zuten eragina kontutan hartuz, liburuan ematen zaien gainbegirada apala aipatuko genuke. Beste maila batean, Estatu Espainolari eskainitako azken zatian, Frankismoari dagozkion atala hurrengo argitalpenetan zabaltzea komenigarria izanen delakoan gaude. Honek guztiak ez du gutxitzen liburuak eman dигun ondo egindako lanaren atsegina, eta ziur gaude ikasleendako burutu duten saio honek langileriaren historiaz kezkatzen diren sektore guztien atxikimendua eskuratuko duela.